

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Idea hau aurrera eramatea erabaki dugu, batez ere, gure bezeroen erosotasunari eta segurtasunari begiratu diogulako.

Hasteko, ordainketa bat egiterako orduan erosoagoa izango litzateke.

Bestetik, beste ordainketa-metodo batzuek baino segurtasun handiagoa bermatzen dizu.

Horretarako, azalean txertatzen diren txip batzuk sortu ditugu, non banku-mugimendu guztiak sartu eta kontrolatu ahal izango diren instalatuko diren irakurgailuengana hurbiltze hutsarekin.

Teknologiaren garapena baliatuz, ordainketa metodo erosoagoa eskaintzen dugu. Eta honako ezaugarri hauek dira besteengandik bereizten gaituztenak;

### BERRITASUNA

Berrikuntza suposatzen du ordainketa metodoen alorrean. Ordaintzeko modu ezberdin bat da eskaintzen duguna.



### ERABILERRAZTASUNA

Produktu hau larruan erraz txertatzen delako nabarmentzen da, baita ordaintzeko orduan eroso delako ere; izan ere, gorputzaren eremua, txiparekin batera, datafonora edo kobratzeko ardura duen gailura hurbildu besterik ez duzu egin behar.



### PREZIOA

Erabiltzaileek ez dute hilabetero ordaindu behariko baizik eta hasierako ordainketa egin ondoren, ahaztu egin ahal izango dira ordazaraintzeaz, harik eta aldatu behar duzun arte. Gainera,, prezio egokiak ezarri ditugu eskuragarria izateko helburuarekin.



## ESKURAGARRITASUNA

Eskuragarria da, gailu elektronikoen edozein dendatan egongo baitira salgai, eta edozein arazoren aurrean, sare sozialen bidez komunikatzeko aukera egongo da.

